

Unibertsitazioen artean, hamarretik zortzik Unibertsitate Publikoa aukeratu zuten

Ikasketa teknikoetan mutilek presentzia handiagoa duten bitartean, neskak gehiengoa dira osasun zientzietan

2006-07 ikasturtean 66.077 ikasle matrikulatu ziren Euskal AEko unibertsitateetan. Beraz, iazko ikasturtearen aldean %4ko beherakada izan zen, Eustaten datuen arabera. Laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetan biztanlerian izandako beherakadak eragina izan du unibertsitateetako matrikulazioetan.

Lurralde lurralde, matrikulatutako guztien %55 Bizkaian ikasten aritu zen, %31 Gipuzkoan eta azkenik, %14 Araban.

Matrikulatutako guztien %54 emakumezkoak izan ziren, joan den ikasturtean izandako ehunekoaren antzera. Zentroen titulartasunari dagokionez, ikasleen %79 sektore publikoan matrikulatu ziren.

Unibertsitateko ikasleen bilakaera, ikasketa-motaren arabera. 2006/07 ikasturtea

	IKASTURTEAK					% Aldakuntza 2006-07 /2005-06
	2006 2007	2005 2006	2004 2005	2003 2004	2002 2003	
GUZTIRA	66.077	68.924	72.394	74.557	76.589	-4,1
Diplomaturak	14.833	14.770	15.113	15.005	15.331	0,4
Arkitektura edo ingeniari- aritzak teknikoak	11.799	12.418	12.756	12.709	12.146	-5,0
Lizentziaturak	27.801	29.251	31.705	33.768	36.079	-5,0
Arkitekturak edo ingeniari- aritzak	9.258	9.883	10.122	10.478	10.641	-6,3
Graduatundokoak	2.386	2.602	2.698	2.597	2.392	-8,3

Iturria: EUSTAT


Hamar matrikulatutatik lauk lizentziatura bat aukeratu zuten

Ikasketa-motari helduta, lizentziaturetan 27.801 ikasle matrikulatu ziren, ikasle guztien %42. Diplomaturetan %22 matrikulatu ziren, arkitektura eta ingeniari-
aritzak teknikoetan %18 eta arkitektura eta ingeniari-
aritzetan %14. Emakumeen presentzia nabarmena izan zen lizentziaturetan (%64) eta diplomaturetan (%71) eta gizonezkoena, berriz, arkitektura eta ingeniari-
aritzak ikasketetan (%66) eta arkitektura eta ingeniari-
aritzak teknikoetan (%73).

2006-07 ikasturtean 2.386 ikaslek egin zituzten graduatu ondoko ikasketak, eta emakume- eta gizon-kopurua antzekoa izan zen.

Honakoak izan ziren gehien eskatu ziren titulazioak: industri ingeniari-
aritzak teknikoa (6.567), irakasle eskola (5.671), enpresa administrazioa eta zuzendaritza (5.161), enpresa-zientziak (4.011) eta industri ingeniari-
aritzak (3.024). Bost karrera horietako izen-emateak matrikulazioen %40 izan ziren ikasturte honetan. Emakumeek hautatutako ikasketei dagokienez, honako hauek nabarmendu dira: irakasle-eskola (4.272), enpresa-administrazioa eta zuzendaritza (2.956), psikologia (2.183), enpresa-zientzien diplomatura (2.151) eta zuzenbidea (1.631).

Unibertsitateko ikasleen banaketa, adarka (%). 2006/07 ikasturtea



Iturria: EUSTAT

Emakumeak gehiengoak izan ziren, Zientzia Teknikoetan ez, beste guztietan

2006-07 ikasturtean 30.737 ikaslek egin zituzten gizarte- eta zuzenbide-arloetako ikasketak. Hori matrikulazio guztien %47 da. Bigarren tokian, 21.587 ikaslek (%33) ikasketa teknikoak egitea hautatu zuten. Bestalde, giza zientzietako ikasketetan 6.234 ikasle matrikulatu ziren (%9). Azkenik, trebakuntza esperimentalaren arloan eta osasunaren arloan 3.690 eta 3.827 ikasle matrikulatu ziren, hots, ikasle guztien %6 adar bakoitzean.

Sexuen araberako lehenetasunen harira, gizonezkoak gehiago dira ikasketa teknikoetan. Adar horretan matrikulatutako 10 ikasletik 7 gizonezkoak dira. Gainerako adarretan emakumeak gehiago izan ziren, %64 gutxi gorabehera; osasunaren arloan, ordea, %81.

Hamar ikasletik zazpik unibertsitate publikoan lortu zuten titulua

2006an 12.667 ikaslek lortu zuten unibertsitate-titulua. Horietatik %90ek lehen eta bigarren zikloetako ikasketak amaitu zituzten. Gainerakoek, hau da, 1.267 ikaslek graduatu ondoko ikasketak amaitu zituzten. Guztira 314 ikaslek gainditu zuten doktore-tesia. Bestalde, titulua lortu zutenen %59 emakumezkoak izan ziren.

Euskal AEko unibertsitateetan 5.307 irakasle aritu ziren eta horietatik %36 emakumezkoak izan ziren

Euskal AEko hezkuntza-sisteman, 2006/07 ikasturtean, 7.267 pertsonak lan egin zuten, hau da, zerbitzuen sektorearen barruan okupatutako biztanleen %8,7k. Langile horien artetik, batzuk irakasleak ziren (5.307 pertsona) eta ez-irakasleak 1.960.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estadística Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte Barcina

Tlf:+34-945-01 75 47 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp